



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko eta deuseztatzeko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko inprimakia

1 ESKAERA MOTA (1)

Sartzea Zuzentzea Kentzea Aurka egitea Mugatzea Eramangarritasuna

2 TITULARRAREN DATUAK (2)

Abizenak	Izena	NAN
Helbidea (kalea / plaza eta zk.)		
Posta Kodea	Udalerria	Probintzia

3 ORDEZKARIAREN DATUAK (3)

Abizenak	Izena	NAN
Helbidea (kalea / plaza eta zk.)		
Posta Kodea	Udalerria	Probintzia
Ordezkatzearen arrazoiak		

4 EGITATEAK ETA ARRAZOIAK (4)

--

Interesdunaren edo legeko ordezkaria sinadura

Lekua eta data

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Arautegia (DBAO) betetzeko, zure datu pertsonalak Arabako Foru Aldundiaren Tratamendu Jardueren Erregistroari erantsiko zaizkio (www.araba.eus) Aldundi honi dagozkion eskumenak egikaritzeko. Erregistro horrek badauzka segurtasun neurri egokiak haien konfidentzialtasuna eta segurtasuna ziurtatzeko baimendu gabeko pertsonen aurka. Eskatutako datuak beharrezkoak dira zure eskaerari erantzuteko. Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, kentzeko, haien aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorraren Bulegoan (Probintzia plaza z.g. 01001 Gasteiz), herritarrak atenditzeko beste edozein bulegotan, edo Internetetik, Arabako Foru Aldundiaren web atariaren barruan dagoen formulario honen bidez.

Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko eta deuseztatzeko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko inprimakia

ESKABIDEA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

ESKABIDE HAU BETE BAINO LEHENAGO, IRAKUR ITZAZU ARRETATZ ATAL BAKOITZERAKO JARRAIBIDEAK ETA ARGIBIDE OROKORRAK.

- (1) Markatu X batekin ezkerreko laukian zer eskaera mota egin nahi duzun.
- (2) Bete ezazu atal hau eskaerari dagozkion datu pertsonalen titularraren datuekin.
- (3) Bete ezazu atal hau bakar-bakarrik ordezkari baten bitartez erabiltzen badituzu sartzeko, zuzentzeko, kentzeko edo aurka egiteko eskubideak. Ez ezazu ahaztu ordezkatzeko horren arrazoia adieraztea.
- (4) Atal honetan adierazi behar dira:
 - SARTZEKO ESKUBIDEAZ baliatzea eskatu nahi bada: Eskuratu nahi diren datuak zehazteko modua ematen duen informazioa.
 - ZUZENTZEKO ESKUBIDEAZ baliatzea eskatu nahi bada: Zuzendu nahi diren datuak eta haiek aldatzen dituzten datuak, baita aldatetaren arrazoia ere.
 - KENTZEKO ESKUBIDEAZ baliatzea eskatu nahi bada: Ezereztu nahi diren datuez gainera, interesdunak kendu beharrekotzat jotzen duen informazioa; adierazi beharko da eskaera zertan oinarrituz egiten den: tratamendua DBAOn arabera egokia ez delakoan, edo datuak behar gabekoak direlakoan hasiera batean haiek bildu ziren helbururako.
 - TRATAMENDUA MUGATZEKO ESKUBIDEAZ baliatzea eskatu nahi bada: Datuak oker izanez gero edo haiekiko tratamendua desegokia izanez gero, interesdunak aurka egin ahal izango du haien tratamendua mugatuz.
 - AURKA EGITEKO ESKUBIDEAZ baliatzea eskatu nahi bada: Eskaera oinarritzen den eta egoera pertsonal jakin batekin loturik dauden arrazoi funtsatuak eta bidezkoak adierazi beharko dira.

Gomendioa: Zure eskaerari ahalik eta azkarren erantzuteko, gomendatzen dizugu zure datuak kokatuta dauden fitxategia(k) adieraz d(it)zazula, hori(ek) zein(tzuk) diren jakinez gero, eta Aldundiaren zein eremu edo zerbitzuek egin zuen haien tratamendua, edo zeinekin izan zenituen harremanak, edo zure datuak tratatzea edo fitxategi batean sartzea ekarri zuen harreman mota.

Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak

- Eskubide hauen erabilera guztiz pertsonala denez gero, zure eskaera tramitatu ahal izan dadin beharrezkoa izango da interesdunak bere burua identifikatzea, edo zuzenbidean balioduna izan eta haren nortasuna egiaztatzen duen beste edozein dokumentu aurkeztea, eskaera hau beste interesdun batek haren izenean eskatzen baldin badu. Adingabeak edo desgaituak ordezkatzekotan, ordezkariak bere NANA eta ordezkaritza frogatzen duen egiaztagiria bat aurkeztu beharko ditu.
- Zuzentzeko edo kentzeko eskubideen kasuan, fitxategietan jasotako datuak oker direla agerrarazteko, beharrezkoa izango da hala egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.
- Aurka egiteko eskubidearen kasuan, eskaeraren arrazoiak frogatzeko komenigarritzat jotzen den dokumentazioa, holakorik izanez gero.

Eskubideen edukia

Sartzeko eskubidea:

Interesdunak eskatu eta dohainik lortu ahal izango ditu tratamendupean dauden bere datu pertsonalen informazioa, datu horien jatorria eta haiekin egin diren edo aurreikusten diren komunikazioak. Sartzeko eskubidea ezingo da gauzatu 12 hilabete baino gutxiagoko tarteekin, bidezko arrazoia izan ezean.

Zuzentzeko eta kentzeko eskubidea (ahaztua izateko eskubidea):

Zuzendu edo kendu egingo dira, hala dagokienez, DBLOn xedatutakoarekin bat etorriz tratatutako datu pertsonalak eta, era berezian, datu horiek behar gabekoak baldin badira, inolako luzamendurik gabe.

Tratamendua mugatzeko eskubidea:

Interesdunak eskubidea izango du bere datuen tratamendua mugatzeko, horiek oker badaude, era ez-zilegian tratatzen badira edo haiek bildu ziren helbururako beharrezkoak ez badira.

Aurka egiteko eskubidea:

Eragindakoaren adostasuna beharrezkoa ez bada datu pertsonalen tratamendurako, eta betiere lege batek ez badu kontrakoa xedatzen, berak haien tratamenduaren aurka egin ahal izango du, egoera pertsonal jakin batekin loturiko arrazoi funtsatuak eta bidezkoak baldin badaude. Horrela izatekotan, fitxategiaren arduradunak tratamendutik kanpo jarriko ditu eragindakoari dagozkion datuak.

Datuen eramangarritasunerako eskubidea:

Dagozkion datu pertsonalak, aurretik datuen tratamenduaren arduradun bati eman zaizkionak, jaso ahal izango dira bitartezko automatizatuen bidez. Interesdunak beste arduradun bati eskualdatu ahal izango dizkio datuok, salbu eta datu horiek interes publikoko helburuekin edo botere publikoak baliatzeko tratatzen badira.